

# ZUBIARTE EUSKALTEGIko

## **BARNE ARAUDIA**

<b>1.- Xedea</b>	<b>2</b>
<b>2.- Oinarriak</b>	<b>2</b>
<b>3.- Printzipio orokorrak</b>	<b>3</b>
<b>4.- Neurri zuzentzaileak</b>	<b>4</b>
<b>5.- Bitartekaritza</b>	<b>4</b>
<b>6.- Hutsegiteen tipologia</b>	<b>5</b>
6.1. Huts egite arinak.	5
6.1.1. Tipifikazioa.	5
6.1.2. Neurri zuzentzaileak	5
6.1.3. Nork aplikatuko dituen	5
6.2. Huts egite larriak.	6
6.2.1. Tipifikazioa	6
6.2.2. Neurri zuzentzaileka	6
6.2.3. Nork aplikatuko dituen.	7
6.2.4. Jarraitu beharreko prozedura (espedientea)	7
<b>7.- Azken xedapenak.</b>	<b>8</b>

## 1.- Xedea

Zubiarte Euskaltegiaren Bizikidetza Planak jasotzen duenez, Euskararen irakaskuntza eta ikaskuntza modu egokian egingo bada, beharrezkoa da prozesu osoa erraztuko duen **lan giro ordenatu, koherente eta koordinatua** eta, orobat, diziiplina eta helburu komun bat erdietsi nahi delako kontzientzia, gizabanakoari eta taldeari ezarritako helburuak lortzea ahalbidetuko dieten azturak eta jokabideak sortzeko oinarri gisa. Oro har, horiek izan beharko lirateke berez bizikidetzarako arauen oinarriak, **ulertuta bizikidetza dela helburu komunak lortzeko elkarrekin lan egiteko borondatea**, lortu nahi diren balioak eta horiek lortzeko prozedurak eta arauak adostasunez ezarriz.

## 2.- Oinarriak

Barne Araudi hau egiteko kontuan hartu direnak:

- ZUBIARTE EUSKALTEGIAren bizikidetza plana.
- ZUBIARTE EUSKALTEGIAren hezkuntza proiektua.
- 204/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena. [13. ALDIZKARIA - 2011ko urtarrilaren 20a](#)
- 47/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa. [116. ALDIZKARIA - 2010eko irailaren 24a](#)
- 57/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 2koa, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu hori Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa da. [148. ALDIZKARIA - 2014ko uztailaren 30a](#)

### 3.- Printzipio orokorrak

Arau hauek hezkuntza jardueraren esparruan txertatzen dira. Hezkuntza prozesuaren hobekuntzan laguntzea dute xede eta prebentzioa zigorra baino hobea den uste sendoa dute abiapuntu.

Irakasle guztiek eta irakasle ez diren langile guztiek dute, nor bere eginkizun eta eskumenen esparruan, ikastetxeko eta horrekin erlazionaturiko zerbitzuetako ordena eta bizikidetza egokiaren ardura.

Bizikidetza Planak, haren 2. puntuan, honako printzipio orokor hauek jasotzen ditu: Eskola elkarteko kide guztiei dagokie ikastetxeetako elkarbizitza bermatzeko behar diren neurriak hartzea eta horretaz arduratzea, hala nola ikasleen eskubideak zuzen baliatzen direla eta eginbeharrak zehatz-mehatz betetzen direla bermatzeko, legeak ezarritakoari jarraikiz. Hori helburu:

- a) Ikastetxeko zuzendaritzak giro egokia bultzatuko du ikasteko, ikasleek gaitasunak eskuratzeko eta ikastetxean elkarren ondoan bizitzeko, eta gatazkak sortzen direnean, auzia elkarrizketaren bidez, akordioen bidez, bitartekaritzaren bidez edo gatazkak bake bidez konpontzeko beste teknika batzuen bidez konpontzen saiatuko da. Bestalde, indarreko legediaren arabera bidezko diren hezkuntza neurriak ezarriko dizkie ikasleei.
- b) Eskola Kontseiluak eta klaustroak behar diren neurriak eta ekimenak proposatuko dituzte ikastetxean elkarbizitza sustatzeko eta horrelakoak garatzen lagunduko dute.
- c) Eskola Kontseiluak diziplina gatazken ebazpenak ezagutu beharko ditu, indarreko legediaren arabera izatea begiratuko du eta, erreklamazioak aurkeztuz gero, berrikusten ahalko ditu.
- d) Klaustroak ezagutu beharko du, orobat, diziplina gatazken ebazpena eta zuzenketa neurrien ezarpena, eta indarreko araudiaren arabera izan daitezkeen begiratuko du.
- e) Irakasleek bermatuko dute ikasleak integrazteko eta elkarbizitza hobetzeko estrategia eta jarduerak garatzen direla, elkarrizketen, bileren edo egoki iruditzen zaizkien beste baliabide batzuen bitartez.

- f) Irakasleek ikastetxeko jarduerak errespetuzko giro batean garatzen lagunduko dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta gaitasunak eskuratzeko prozesua errazteko ikasleei, eta horretarako beren agintea erabiliko dute gelan eta ikastetxean. Era berean, sortzen diren diziplina gatazketan edo arazoetan lehenengo esku-hartzearen arduraduna izanen da eta konpontzeko behar diren neurriak aplikatuko ditu bere erantzukizunaren eremuan.
- g) Ikasleek erantzukizunez jokatuko dute beren eskubideak erabili eta eginbeharrak betetzeko orduan.

## 4.- Neurri zuzentzaileak

Ezarritako arauen haustura denean, neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera izanen da. Erabakia hartzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Ukituriko ikasleen pertsona, familia eta gizarte egoerak eta adina.
- b) Zehapena eragin duen jokaera edo egintzarekin duen proportzionaltasuna.
- c) Ukituriko eta gainerako ikasleen hezkuntza prozesuaren hobekuntzan zehapenak izanen dituen ondorioak.
- d) Zehatzen den jardunak ikastetxearen bizitzan duen eragin objektiboa.
- e) Zehatzen diren jardunen errepikapena edo haietan berriz ere erortzea.

Bizikidetza arauen aurkako jokaerak prebenitzea helburu, bizikidetza arau hauek eta Bizikidetza Plana argitaratuko dira, indarreko araudiaren arabera eguneratuak izan ondoren, ikastetxearen web orrialdean eta, bai moodlen bai idazkaritzan, kopia bat egonen da kide guztien kontsultarako.

## 5.- Bitartekaritza

Eskola bitartekaritza gatazkak hirugarren pertsona batek esku hartuz konpontzeko metodoa da, horren helburua alderdiei haiek berek akordio gogobetegarria lortzen laguntzea izanik.

Ikastetxeko **zuzendariak** zuzenean esku hartzeko ahalmena du, hezkuntza komunitateko kideen artean sortzen diren gatazketan arbitraje eta bitartekaritza eginkizunak gauzatzeko. Bestalde, eginkizun hori teknikoki gaituriko pertsona baten esku uzten ahal du.

Bitartekaritza prozesua **prebentziozko estrategia** gisa erabil daiteke eskola komunitateko kideen arteko gatazken kudeaketan, azken horiek ikastetxeko bizikidetzarako jokaera arinki edo larriki kaltegarritzat tipifikaturik egon ala ez.

Bitartekaritza **ordaina emateko edo adiskidetze estrategia** gisa eskain daiteke, neurri zuzentzaile bat edo zehapen bat aplikatu ondoren, pertsonen artean konfiantza lehengoratzeko eta gerta daitezkeen antzeko egoeretan erantzun elementu berriak emateko.

## 6.- Hutsegiteen tipologia

### 6.1. Huts egite arinak

#### 6.1.1. Tipifikazioa

Hurrengo hauek jotzen dira ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokaeratzat:

- a) Eskolako jardueren gauzatzea asaldatzen duten egintzak.
- b) Ikaskideek ikasteko duten eskubidea gauzatzea galaraz edo oztopa dezaketen jokaerak.
- c) Hezkuntza komunitateko beste kideenganako tratu ez-zuzena eta begirunerik gabea.
- d) Ikastetxeko instalazio, material edo dokumentuetan edo hezkuntza komunitateko beste kideen ondasunetan kalte txikiak eragitea.
- e) Ikastetxeko materialaren eta horniduren erabilera desegokia.
- f) Ikastetxeko edozein eremutan erretzea, ate ondoko kanpoaldea eta sarbideak barne.
- g) Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendu informatikoa erabiltzeko arauak ez betetzea.
- h) Ikastetxeko zerbitzuak (liburutegia, informatika gela, komunak, Moodle-a...) erabiltzeko arauak ez betetzea.
- i) Jarduna normal gauzatzea asaldatzen duen beste edozein oker, ikastetxeko bizikidetzarako jokaera larriki kaltegarria ez bada.

#### 6.1.2. Neurri zuzentzaileak

- a) Ahoz kargu hartzea: ahozko abisuak egitea edo ikaslearen hutsegitea den

jokaeraz ohartaraztea. Ahal den neurrian, pribatua izan dadin ahalegina eginen da.

b) Klasetik kanporatzea: ikasleak, berari ahoz kargu hartu ondoren, ikasgelan duen jarrera zuzentzen ez badu, klasetik kanporatua izaten ahalko da.

Horrelakorik gertatuz gero, zuzendariari emanen dio horren gaineko informazioa. Zuzendariak gertatutakoa idatzirik emateko eskatzen ahal izanen dio irakasleari.

### 6.1.3. Nork aplikatuko dituen

Bizikidetzaren aurkako jokaerak ikasgelan izaten badira, dagokion irakaslea saiaturiko da lehenik jokabidea zuzentzen.

Arazoa irakasleak zuzendu ezin izan badu, horrek ikastetxeko zuzendaritza taldeari helaraziko dio kasua.

Kasu horietan neurri zuzentzailea edo zehapena ezartzeko organo eskuduna ikastetxeko zuzendaria izanen da, edo, horrek eskuordetuta, zuzendariordea edo ikasketaburua.

Bizikidetzaren aurkako jokaerak ikasgelatik kanpo izaten badira, ikastetxeko edozein langilek hartzen ahalko du kargu ahoz eta, horrek espero zen zuzentze ondorioa ez badu, ikastetxeko zuzendariarengana joko da, edo, hori ez badago, momentu horretan euskaltegian zuzendaritza taldeko kidearengana.

## 6.1. Huts egite larriak

### 6.1.1. Tipifikazioa

Jokaera hauek jotzen dira ikastetxeko bizikidetzaren aurkako hutsegite larriki kaltegarritzat:

- a) Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisikoa.
- b) Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurkako irain eta ofentsak.
- c) Ikastetxeko langileek larrialdi kasuan edo larrialdi simulakro kasuan

emaniko jarraibideak ez betetzea.

- d) Laidoak, jazarpena, esetsaldiak, umiliazioak, bereziki sexu, arraza edo xenofobia osagarriak badute.
- e) Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurkako mehatxuak edo hertsapenak.
- f) Norbait irakaskuntza jarduneko ekitaldietan iruzurrez ordeztea.
- g) Dokumentu akademikoak faltsutu, kopiatu, lapurtzea.
- h) Azterketa batean kopiatzea.
- i) Instalazioen narriadura larria egitea, edo baliabide materialetan edo dokumentuetan, edo besteen ondasunetan.
- j) Ikastetxeko edozein baliabide material edo dokumentu, edo besteen ondasunetan, ostea.
- k) Gobernu organoen ordezkarien edo zuzendaritza taldearen aurka hitzezko edo egitezko jokaera erasokorrak.
- l) Intimitatearen aurkako erasoak, hezkuntza komunitateko edozein kideren irudia grabatu eta baimendu gabeko edozein erreproduzio bidetatik zabaltzea.
- m) Ikasturte berean bizikidetzara arauen aurkako jokaerak errepikatzea.
- n) Jarduerak normalki gauzatzea galaraztera zuzenki bideraturiko beste edozein ekintza.
- o) Ezarritako zuzenketak ez betetzea.
- p) Hezkuntza Departamentuak edota Euskaltegiak berak ezarritako osasun-neurriak ez errespetatzea.

### 6.2.2. Neurri zuzentzailea

Diziplina neurriak, hartuz gero, honako hauek izaten ahalko dira:

- a) Kostu ekonomikoak bere gain hartzea. Ikastetxeko instalazioetan eta materialean edo eskola komunitateko beste kideen ondasunei eraginiko kaltea konpontzeko kostuen ordainketa.
- b) Eskolara joateko eskubidea etetea. Ikastetxera edo eskola zehatz batzuetara joateko eskubidea etetea, hoguei eskola egunetarako gehienez ere, eta ikasleak ikastetxetik kanpo lan zehatz batzuk egiteko izan dezakeen betekizunari utzi gabe. Irakasleak ikasleari ikastetxera ez joateko

egunetan egin beharko dituen jardueren lan plana ematen ahalko dio eta segimendu eta kontrol erak finkatuko ditu etengabeko ebaluaziorako eskubidea bermatzeko.

- c) Deialdi horretako proba guztiak baliogabetzea. Inork azterketa batean kopiatu balu.
- d) Behin betiko desgaikuntza. Ikasketak hutsegitea egin dueneko ikastetxean egiteko behin betiko desgaikuntza.

### 6.2.3. Nork aplikatuko dituen

Ikastetxeko bizikidetzarako hutsegite larriki kaltegarriak diren jokaerak dagozkien prozedura izapidetu ondoren soilik zehatzen ahalko dira. Prozedura ofizioz hasiko da, ikastetxeko zuzendariaren erabakiaren bidez, bere ekimenez edo eskola komunitateko edozein kideren ekimenez, gertaerak ezagutu eta bi eskola egunera gehienez ere. Espedientearen instrukzioa egitea ikastetxeko zuzendaritzak izendaturiko irakasle bati dagokio.

### 6.2.4. Jarraitu beharreko prozedura (espediente)

Espedientearen instrukzioa egitea ikastetxeko zuzendaritzak izendaturiko irakasle bati dagokio. Espedientearen gertaerak eta tartean dagoen ikaslearen erantzukizuna finkatuko dira eta zehapena proposatuko da, baita, egokia bada, ikastetxerako onura sozialeko jarduerak eta, behar denean, kalteen edo zigortzen den jardunak ustekabearen ukiturik geratu diren materialen konponketa edo lehengoratzearen zenbatekoa ere.

Espedientearen hasieraren berri ikastetxeko zuzendaritzak emanen dio ikasleari. Egokitzat jotzen diren beste instrukzio jardunak alde batera utzi gabe, behin betiko ebazpen proposamena egin aurretik, espedientearen instruktoreak ikasle ukituari entzun behar dio eta espediente osoa behin-behineko ebazpen proposameneraino ikustera eman behar dio, espedientearen finkatzen eta proposatzen denarekin bere adostasuna agertu edo alegazioak egin ahal izateko. Espedientearen ikusteko izapidea -zeinen gauzatu izana idatzirik jasota geratu behar baita- egiteko epea bost eskola egunekoa da eta alegazioak egiteko epea beste bost eskola egun gehiagokoa da.



Ukituriko ikasleen edo ikastetxeko gainerako ikasleen hezkuntzan kalte handiagoak saihestearren, ikastetxeko zuzendaritzak, espediente bat hastean, eskolara joatearen behin-behineko etendura aplikatu dezake salbuespenez, hiru eskola egunerako gutxienez eta 20 eskola egunera gehienez ere luza daitekeena. Etendura espedienteari hasiera eman dion zuzendaritzaren ebazpenean jasota geratu behar da eta horrek ikastetxera ez joatea ekar dezake berarekin.

Ikastetxeko zuzendaritzak espedientea ebatzita, eta ukituriko ikasleek eskatuta, eskola kontseiluak aplikatu den zehapena azter dezake, errekurtsio edo erreklamazio egokiak dagozkien lurralde zerbitzuetan aurkeztea galarazi gabe. Dena den, ikastetxeko zuzendaritzak aldian-aldian eskola kontseiluari eman behar dio ebatzi diren espedienteen berri. Artikulu honetan aipatzen diren hutsegite eta zehapenak egiten eta ezartzen direnetik, hurrenez hurren, hiru hilabetera preskribatzen dute.

Ikasleak, bizikidetzarako hutsegite larriki kaltegarriak ustez egin izana dela eta, horiek egin izana berehala aitortu eta dagozkien zehapena onartzen badu, zuzendaritzak zuzenean ezarri eta aplikatuko du zehapena. Hala ere, eginiko hutsegitea ikasleak aitortu duela eta zehapena onartu duela idatziz jasota geratu behar da.

## 7.- Azken xedapenak

LEHENA. Adingabekoen kasuan, gurasoei edo legezko tutoreei ere emanen zaie informazioa eta haiek prozeduran sartuak izanen dira.

BIGARRENA. Bizikidetzara arau hauetan aldaketak egitea beharrezkotzat jotzen denean, aldaketa proposamenak zuzendaritza taldeak, klaustroak, Eskola Kontseiluan ordezkatuak diren beste sektoreetako edozeinek edo organo horren heren batek egin ditzakete. Proposamena aurkeztuta, zuzendariak zehaztuko du Eskola Kontseiluko kide guztiek azter dezaten hilabeteko epea, gutxienez ere. Aldaketa proposamena ikasturtearen lehen hiruhilekoan onesten ahalko du kontseilu horrek.

HIRUGARRENA. Bizikidetza arau hauek 2022-2023 ikasturtetik aurrera dira aplikagarriak Zubiarte Euskaltegian, baldin eta goragoko lerrun bateko xedapenak urratzen ez badituzte, eta haien indarraldiak iraunen du bere zenbait artikuluren salaketa zehatzik egiten ez bada edo aldaketarik egiten ez bazaio.

LAUGARRENA: Barne araudi hau **2022ko ekainaren 9ko Eskola Kontseiluan onetsita** izan da.